



Lur Santuetara, eta ara bil-tzen omen ziran joanaldi aie-tan guduari, itsasoari edo gaitzari sobrante gelditzen zitzaizkionak, atzera aberri-ra zetozenean.

Kondairak ondo probatu dituen lurretatik ibilli bear izan dut. Errekasto baten gaiñetik igarotzean, ala azal-

nau, Errusia-rako asmoetan zebillela Napoleon-en bizile-ku izatu omendako etxe, orain hotel, batean.

Dülmen, Coesfeld: Anna Katharina Emmerich estig-madunaren lurrak. Denok dakigu gaurko gustoari etzaizkiola gozo egiten Em-merich-en idazkiak, eta apro-pos galdetu diot tentatzeko: zer diote alemanek Anna Ka-tharinaz? Laister antzeman dit: jende asko dator one-ra Katharina-gatik bakarrik. Zer esango duzu?... Eta ixi-lik gelditu da une batean. Baiña berealaxe: ezagutzen al duzue zuek ere? —Gutxi asko, baietz esan bearko. Nik beintzat zerbait iraku-rria-edo dut. —Eta nola de-ritziozute zuen artean? (Buel tako sakea, ez baita es-kumotz). —Ez dakit ba, da-netik dagola esango nuke, erantzun diot baezpadan.

Ttonttor batean gelditu gera parajea begira. Paisaje bigun bat. —An, baso alien atzean dago Eggerode, urru-nagoko mendi bizkar aren oiñetan.

Mendi kokkor leun batzuk agiri dira, berde berde. Na-farroako garisoroen udabe-rriaz oroitzen naiz. Gure aurrean, berriz, basoa beltz beltz. Antxiña marisma uts omen zan au guztia eta izu-garrizko burgo edo fortaleza omen zeukaten saxonak emen paratuta. Lokatzpean bide extu jakifñak eginda omen zeuzkaten, eta andik aurrera etzebillena —Karlos Aundiaren soldaduak— sin-giran galtzen zan. Gaur lur

EGGERODE



Eggerode erri kokkor bat da. Alferrrik billatu dut bein eta berriro mapan: Eggero-de ez da nire mapan ifundik agiri. Nik, alare, ara joan bear dut derrigor: an omen dago inguru oetako Andra Maria-ren irudi zaharrena-ta. Kontatu didatenez Santutegi onek berebiziko izena omen zuen Gurutzadetako denpo-ran. Andik joaten omen ziran gudari gurutzedunak

du dit gidatzen eta lagun-tzen nauenak: erreten mutur au, gero! Emen eutsi zio-ten saxonak Karlos Aundia-ren erasoari, aurrera ezinda, tropa berriak otsegin bear izan zituen arte. Eta emen-txe, zelai onetan purrukatu zuen Kaiserrak azkenean sa-xonen resistentzia.

Amar mifñutu lehenago zerbeza batera konbidatu

emankor da, nekazaritza lurralde. Belazeak, basoak, ganadu asko. Erri askok daramate emen **-rode** bukaera. Basoan une bat bota (**roden** adizetik) eta bertan base-ria altxa zutela adierazten ei du atzizki onek.

Ogei persona ozta ozta kaitzen diran kapillatxoa Parrokiaren alboan, ori duzu emengo Santutegi guztia. Exagonal, estilo definitu ezin batekoa guztiarekin. Adornuek zearo demostratzen dute gustoaz ez dala eztabaidarik posible.

Irudi zaharraren arrastorik ere ezin aurkitu nik, ordea. Asi naiz galdezka ta

ALEMANIA-TIK

Eggerode

JOSE AZURMENDI

jendeak **platt** mintzatzen dirala konturatu naiz. **Platt** au il zorian dagon izkuntza bat duzu. Dialekto dala esaten dizu jendeak, baiña ezezkoan daude germanistak, besterik esan digute irakasleek beifjepein. **Platt**, beraz, egiazko izkuntza izan bear du, gaur auzo ta zaharretara esitua dagoena. Eta ba dirudi ifñork ez duela esku bat mogitu nai aren egoera erremediatzeko.

Irudi zaharra ez dago ikusterik, ez dago-ta... Aurrean dudana... (ez nioke errespetoari faltatu nai) au omen da gelditzen dan guztia.

Sortaldetik ekarri izan

bear zuen berez irudiak. Bearbada gurutzadunen batek. Estilo bizantinokoa omen zan. Denpora joan ala, Coesfeld-eko markesaren batek-edo bere ezkontza soifnekoekin jantzi bat eratu zion iruditxo oni (esku ta erdi luze, ortxe ortxe) eta orrelakoa agertu izandu omen da joan dan mendera arte. 19'garren gizaldian (18-gn. esan dit beste batek) jantziak kendu ta berezko zan artara biurtzea erabaki zuten. Baiña ordurako denporak, ardurazak eta pasaizoek galera asko zioten gaifñeratua iruditxoari. 30 Urteko Guduan, izan ere, sueziarrak alegifñak egin omen zituzten irudi au galtzeko. Familia katoliko batek potzu legor batean izkutatatu zuela eskerrak salbatu zan erreketatik.

Sueziarrak ezin egin izan zutena gutxi gora behera, asmo obeeikin bederik, berri-tua eman dionak iritxi du. Irudi zaharretik ez da ezer agiri. Bai, barrutik oraindik orijinala omen da, baiña ni ez naiz egurra barna ikus dezakean Lynkeus-ik... Pas-titxe triste itsusi bat biurtuta dago gaur Eggerode-ko Andra Maria. Eta Artearen kondairan "ba omen zalako" soil batekin ezagutzen da. Irudia, zearo da berri, ta itsusiago berri baiña alare.

Maria-ganako debozioak izan dituen deformazio ta eragabekerien irudizat ar genezake emen gertatua. Thomas Sartorg-k dionez, katoliko ta protestanteen arteko Maria-rekiko ezberdintasunek ez dute Mariologian sustraia, beste nunbait bai-zik. Eta beste nunbait au, puntu zaillago batzuen aldean, debozio endreatu zen-

baitetan aurkitzen du. Ez dugu ahaztu bear Lutero asarre mintzatu zela "Jainkoaren Ama jainkosa" biur-tzen zutenen kontra. Eta arrezkeroko luterotarrak alako zerbaiten kutsua artzen digute oraindik, eta ez dut uste inpresio au zuzen-tzeagatik asko ardura oi geranik.

Protestanteekin ontaz mintzatu naizeño beintzat, **lati-notzat**, egoko lur beroetako deboziotzat daukatela iruditu zait beti. Eta ez da au jende xehearen iruditu utsa. Walter von Loevenich teologoa dio, Konzilio Efeso-koaren Jainkoaren amatza definitzea San Paulo-k burrukatu zuen "Efeso-tarren Diana-ren" kristau gisako agertu berritze dala. Beraz, joera mitikoen konsagrazioa... Eta guk geuk ere, debozio klase batzuek ikusita, naiago genduke konzien-tzipearen zera oriek garbiago ikusiko balira, Petrus Canisius-ek bildur zuen bezala, Jainkoari eman nai zaion kultoa deabruaren irabazi izan ez dedin.

Ez al da arrigarri ta triste "separatzen gaituen Amaz" itzegitea, eta gaizki ulertuak, gaitziritziak ezabatze-ko interes geiagorik ez alde batetik eta ez bestetik ikus-tea?

Irudi eder bat omen zana erabat itxuragabetua, alferrikaldia aurkitu dut Eggerode-n. Penaz galdetzen dut ez ote dugun okerragorik egin geure fedean, eta Elizako bizitzaren barnean indar eder bat zana ta zite-keana ez ote dugun faltseatu. Ez baita aski barrutik egiazko irudia egotea, kanpotik pastitxe itsusi baten forma izan ezkeru.